

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure ideia energia kontsumoa murrizten eta kontrolatzen laguntzen duen aplikazio bat egitea da. Aplikazio honek sentsoeren eta sarearen bitartez funtzionatuko du. Aplikazioa aktibatzerakoan honek energia xahutzen ari diren gailuen berri emango dizu. Hainbat egoeretan da erabilgarria; adibidez, argi bat piztuta utzi baduzu, gailu bat konektatuta badago edo tenperatura altua badago etxean eta berogailua piztuta, aplikazioak abisu bat bidaliko lizuke mugikorrera. Aplikazio honek bizi kalitatea hobetu diezaguke; izan ere, honi esker dirua aurrezte eta gutxiago kutsatzea lor dezakegu.

Gure bezeroei dagokionez, gehienbat helduak izango dira, gutxi gorabehera 18 urtetik gorakoak. Gure bezeroak izateko bi baldintza bete beharra dira. Alde batetik, internetarekin eta gaur egungo teknologiekin eguneratuta egon beharra dute, horrela aplikazioa erabili ahal izateko. Bestetik, etxe propio bat izan beharra dute aplikazioa erabilgarria izateko.

Energia enpresa bat izango dugu bazkide, Iberdrola esaterako. Gure hornitzaileak, aldiz, elektrikariak, etxearen argi korrontean sentsoareak jartzeko, eta informatikoak, sistema eta aplikazioa konfiguratzeko, izango dira. Bazkideak eta hornitzaileak guretzako oso garrantzitsuak dira sistema eta aplikazioa martxan jartzeko orduan. Azken batean, beraiek dira sistema eta aplikazioa jarri behar dutenak, guk jendeari zerbitzu bat ematen diegu eta bazkideak eta hornitzaileak praktikan jartzen dute etxebizitzetan.

Gure bezeroak produktu edo zerbitzu hau eskuratzeko, hilabetero 20 euroko gutxi gorabeherako ordainketa egin beharko dute. Hasieran, aparatu guztiak eta sistema guztiak jartzeko 50 euroko ordainketa bakarra egin behar da. Gehiengo bezeroak ala guztiak eskuragarri duten prezioa da. Hortaz, guztiek gure aplikazioa izateko ahalmena izango dute eta haien energia ondo kudeatzeko balioko zaie. Bezeroentzat errentagarri da energian diru gutxiago gastatuko dutelako eta teknologietan eta haien gastuetan erraztasun gehiago izango dituztelako.

Marketinaren aldetik, argindarra ematen duten enpresekin hitz egingo dugu beraien zerbitzuarekin batera gure produktua eskaintzeko bezeroei. Bestalde, sare sozialetan iragarki bideoak zabalduko ditugu eta gure produktuaren funtzionamendua eta abantailak azalduko ditugu. Gure zerbitzuak ematen dituen abantailak erakutsiz eta honen publizitatea eginez bezero berrietara iristea eta dauzkagunak mantentzea lor dezakegu.

Taldean lan ona egitea, denbora aprobeztatzea eta saltzera jartzeko orduan, marketin ona egitea izango dira gure helburuak. Marketin ona egitea oso garrantzitsua da, bezeroak erakarri beharko dituelako eta hauek konbentzitututa egon beharko direlako.

Gure proiektuan hainbat gastu ditugu hau finkatu ahal izateko. Hasteko, materialak erostea oso garrantzitsua da, baino merkeenak eta hoberenak lortu beharko ditugu. Horrela, gure produktua edo software-a saltzean irabaziak handituko ditugu.